



Camiño da ribeira ibilbidea

Camiño da ribeira mendi-ibiliko lehen urratsak Eduardo Pondal poetaren jaiotetxe aurretik abiatuta egiten dira, eta A Insua senadara iristen da Anllóns ibaiaren bokaleari jarraituz ibai-pasealekuan eta O Couto malekoian barrena. Lur eta harrizko dikeak itsas paduretako kanal zabala banantzen du, XIX. mende hasieratik 80ko hamarkadako azken urteetara bitartean laborantza-lur (artoa) emankorrek izan zirenak.

Estuarioa balio ekologiko handiko lekua da, Natura 2000 Sareko Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (BBE) eta Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izendatutakoa. Uretako hegazti askok, bertakoek zein migratzaileek, batik bat limikolek eta galtzeko zorian dauden batzuek babeslekua eta janaria aurkitzen dituzte eremu horretan, esaterako, txirritxo hankabeltzak.

Ibilbideak senadaren ertzean eta Branco mendiaren hegalean jarraitzen du. Senada ertzean hegazti-behatoki bat dago Os Cagallóns uharte parean. Mendiko bidezidor alternatibo batek aukera ematen du gailurrera igo eta inguruneke ikuspegi onenak izateko, eta harea arteko beste bidezidor batek Barra edo Medio hondartza bakartietara eramango zaitu, duna mugikorren oinera. Kontuz ibili, ez zapaldu!

Duna-sistemak ozeano Atlantikoaren erasoen aurka babesten du estuarioa. Estuarioa Corme eta Laxe itsasadarrean iristen da itsasora. A Tiñosa uharte txikira oinez hel daiteke itsasbehera dagoenean, eta olatuen erritmoak eta kresalaren usain igarokorrak itsaso zabalaren hurbiltasuna iragartzen dute. Eduardo Pondal



poetak zioen harrizko uharte horrek "muskulu bikainak ematen dituela eta "petrelo" eta kaio basatien babeslekua dela".

Hareazko alfonbra bat balitz bezala, arrantzale-bidezidor bat iristen da Balarés hondartzaraino. Itsaslabarrak ziprztintzen dituzten mota beltzak muskuiluak dira eta aurrez aurre ikusiko dituzun bi lurmuturren atzean Roncudo muturra ezkututzen da, Costa da Morte ko lanperna ezagun eta ospetsuak hazten diren tokia.

Balarés hondartza titanio-meatze agortu baten egoitza eta mineral horren eta inguruko Neme menditik ateratako wolframioaren irteera-portua da. Hondartza horretan atsedean hartu eta gero, ibilbideak A Facha mendiaren hegalean jarraitzen du Gondomil haranerantz. Pedra da Serpe izenez ezagutzen den monumentuak merezi du geldialdia egitea bere oinarrian grabatutako narrasti hegaduna ikusteko.

Zutabe, harri eta zuhaitz-enborretako baliza, marka eta seinaleek A Ermida hondartzarantz eramango zaituzte orain; A Estrela uharteak babesten du eta, jendearen esanetan, garai batean harekin bat eginda egon zen; gero O Osmo eta A Arnela hareetarantz jarraitzen du bideak. Azken geldialdia Corme herrian izango da. Marinel- eta merkataritza-ukitua du eta gaur egun itsasoari lotuta jarraitzen du.

Camiño da ribeira mendi-ibilia (PR- G148) bi norabideetan dago markatuta eta ausartenok Pontecesorantz itzul zaitzekete ibilbide beretik edo Pedra da Serperen aldamenetik Alto dos Loureirosera eta Alto das Traviesasera (PR-G 148.1, 5,57 km) igotzen den saihebidetan barrena, Branco mendiko begiratokian amaitzeko.

Cormen gelditzea aukeratuz gero, Roncudo lurmuturrerainoko ibilbide alternatiboak zentzumenean esperientziarekin jarraitzeko aukera emango dizu,



zapore ospetsueneko lanpernak hazten diren lekua ikusteko eta baita lanperna-
biltzaileen lanbidearen arriskua ere.

Olatuen eta haizearen indarrak miazkatutako mutur harritsu horretatik
Pontecesoko kostaldea miatzen jarrai dezakezu iparralderantz: A Bardako
senada, Santa Mariñako portua, arrantzaleen txabola eta guzti, Niñóns hondartza
eta Faro mendia. Faro mendian, izen bereko amabirjinaren kaperaren ondoan,
Jesusen Bihotzaren monumentua dago, 39 m-ko garaierakoa eta barrualdean 133
mailako eskailera duena.

Bertigoak galarazten ez badizu, Pontecesoko kostaldeko ikuspegi apartak daude!